

Desoreka judo kluba, heziketa helburu duen eskolaz kanpoko kirol ekintza.

Markel Urrutia Larrañaga

Desoreka judo klubeko kirol arduradun teknikaria.

markelurrutia@gmail.com

Arloa: kongresuko zein arlotan aurkeztuko den zehaztu.

Laburpena:

Testu honetan, **Desoreka judo klubaren kirol proiektuko esperientzia** azalduko dugu. Judo klub honek zer duen ezberdin edo zergatik den aipagarria egiten ari den lana.

Ba erantzuna ondorengo hau da: **heziketan oinarritutako judo klub** bat dela. Desoreka judo klubeko talde teknikoa beste klub batzuetatik etorri da eta talde tekniko honek **bere kirolari ibilbidean bizitako esperientziek kirola eta eskolaz kanpoko ekintza bati beste enfoke bat emateko beharra** sentitu du.

Judo klub tradizionalek errendimendu izan ohi dute **helburu eta bide**, hau izaten delarik honelako klub hauen ardatz nagusia, **gure ustetan errendimendua 2. maila** baten dago, lehendabizi oinarritzko beste aspektu asko landu beharko lirateke. Hau honela **esperientzia honek eskolaz kanpoko kirol ekintzek abiapuntu eta helburu hezitzailea** izateko proposamenera gerturaten gaitu.

Proposamen hau aztertzeko **3 aldagai** sakonduko dira: **motrizitateren garrantzia, hezkuntzak** dituen **mugak** eta **helburu hezitzaileak** dituzten eskolaz kanpoko kirol ekintzen aukerak.

Eta azkenik **heziketa paradigma ezberdinenei buruzko hausnarketa** batekin amaituko du aurkezpen honek.

Gako-hitzak: heziketa, eskolaz kanpoko kirol ekintzak, judoa.

Proiektuaren bilakaera:

2013 an sortu zen kluba eta hasiera hasieratik geneukan argi helburu hezitzailea izan behar zuela gure egitekoak. Honetarako **kirol eta heziketa munduko profesional eta ikaslez** gauzatu genuen **talde teknikoa** (“irakaskuntza” eta “ivef”).

Hasi ginenean ikasleen **bolumenak baldintzatzen** gintuen eta taldekatzeak honen arabera egin genituen nahiz eta bagenekien haurrak etorri ahala egokitzapenak egiten joango ginela.

Hasierako planteamendua, taldekatzeak:

- 3-5 urteko taldea (HH taldea)
- 6-12 urteko taldea (LH taldea)
- Senior-beterano taldea

Planteamendu hau haur kopuruak mugatzen zuen eta **nolabaiteko haurren garapen psikologiarekin lotua** zegoen nahiz eta konturatu LH 1-6 taldearen taldekatzeak muga haundiak zituela.

Bigarren taldekatzea:

- 3-5 urteko taldea (HH taldea)
- 6-8 urteko taldea (LH taldea)
- 9-12 urteko taldea (LH taldea)
- Senior-beterano taldea

Hemen haurren kopurua gehitu zenez **taldekatzea hobetzeko aukera** izan genuen, LHko taldekatzea zatituta eta HHkoarekin bereiztuz. Dena den konturatu **ginen 3 urteko haurrengana haurren** ezaugarriengatik eta egiten zen lanagatik askotan **ez ginela heltzen. Kontuan izanda haurren garapen integrala: fisikoa, adimen arloa, afektiboa eta soziala** gure taldekatzea eta proiektuan aldaketa bat proposatzea erabaki genuen.

3 urteko haurrentzat judorik ez genuen planteatuko hemendik aurrera, hau izango zelarik gure planteamendua, **psikomotrizitatea espreski lantzea:**

- 2-4 urteko haurrentzat psikomotrizitate saioak.
- 4-5 urteko judo saioak (HH).
- 6-8 urteko taldea (LH taldea) 1-2 maila
- 9-12 urteko taldea (LH taldea) 3-4-5-6 maila.
- Senior-beterano taldea (Infantil 2. urtetik aurrera uztartuz)

Kirol klub batek psikomotrizitatea espreski lantzea berrikuntza bat delakoan gaude kirol munduan. Talde teknikoak proposamen hau egin du aurrez aipatutako haurren oinarriko beharrak asetzen ez zirela ikusita.

Hau honela psikomotrizitatea espreski lantzearen proiektuaren **lehen fasean:**

- **2-4 urteko haurren lantzea** bilatzen da haurren garapen holistikoa bilatzeko.

Ondoren 2. Fasean:

- **6 urteko haurren psikomotrizitate saioak.** LH ematen den aldaketara egokitzeko psikomotrizitateak izan ditzakeen onurak positiboak izango direlako ideiarekin.

Psikomotrizitatearen proiektua gauzatzeko aurtan aukera izan dugu baina aurtengo urtean ezin izan da gauzatu giza baliabideek gure ekintza mugatu dutelako. Beraz psikomotrizitatea kirol proiektuaren garapenean sartzeko aukera aparkatuta geratu da giza baliabideak aurkitu bitartean.

Justifikazioa

Ondorengo puntuan **LHko gaitasunekin lotura** egiten da eta hor daukagu proiektuaren **justifikazioarako ideia sorta paregabea.**

Horrez gain, **2008ko BOPV** en agertzen den **eskola kiroleko dekretuan** ere bilatu geniezaioke sustengu eta **justifikazioa.**

Dekretu honen 1., 2. eta 6. artikuluetan honelako puntu hauek aipagarriak izan daitezke gure **proiektua defendatzeko:**

- Kirol jarduerak hezigarria izan behar direla dio.
- Heziketa helburuekin bat egin behar dutela dio ere, batez ere gorputz hezkuntzako helburuekin.
- Hezkuntza balio positiboak lortu, kirol ohiturak sortu, bizimodu osasungarri baten hezi eta kirol ikusleak heztea moduko ideiak planteatzen dira.
- Errendimenduko kirol praktikak haurraren garapen harmoniatsu eta integrala errespetatu beharko duela dio.

Guzti hau kontuan hartuz gure kirol proiektuak dituen irizpideak egoki direlakoan gaude. **Heziketara bideratutako kirol jarduera** alegia eta **errendimendua heziketa prozesu horren zati moduan ulertu** beharko litzatekeena, **ez helburu gisa; prozesu gisa baizik.**

Testuinguruaren azterketa eta gaitasunekin loturak

Nola eragiten dio guzti honek gure planteamenduari? Ba **aldagai ezberdinak kontuan hartuta**, adibidez: **motrizitatearen garrantzia, hezkuntzak dituen mugak** eta **helburu hezitzaileak dituzten eskolaz kanpoko kirol ekintzen aukerak** .

3 aldagai hauek nolabait gure **ekintza mugatu eta definitzeko** aukera ematen digute eta era berean proiektuaren **marko teoriko eta justifikaziorako** aukera ere zabaltzen digu.

Alde batetik **motrizitatearen garrantzia** daukagu, hau azaltzeko ondorengo puntu aipagarriak daude:

- Haurren **mugimendu beharra aitortzea**. **Motibazioarekin** duen erlazio zuzena kontu izanda.
- **Harremanak sustatu** eta lantzeko aukera, **sozializazioa** ahalbidetuz.
- **Planifikazioaren garrantzia malgutasuna** eta ikas aukerak kontuan hartuz: edukiak era orekatuan planteatu eta hausnarketaren boterea.
- **Aurrerapen teknikoak:** baliabide teknologiko, neurozientzietako aurrerapenek... baliagarri motrizitatea lantzeko. **Erlazionatua egiteko moduarekin**, ez metodologiaren ikuspuntu reduktionistarekin, **enfokearen ideia**, metodoak uztartuz.

Beste alde batetik, aipatu berri ditugun **hezkuntzaren mugak** honako hauek izango lirateke:

- **Ez dago orekarik** beste ikasgai eta mugimendua eskatzen duten materien artean. **HF mugimendua ahalbidetzen duen bakarra.**
- **Praktikarako ordu gutxi.**
- **Baliabide eta curriculumaren mugak.**
- **Erakunde eta instituzioen mugak.**

Guzti hau kontuan izanda aurrez aipatu dugun **3. aldagaia daukagu, hezkuntzak** gaur egun dituen **mugak motrizitatea garatu eta mugimendua ahalbidetzen duen lan esparruak eskaintzeko oso gomendagarria iruditzen zaigu hezkuntza helburu dituen eskolaz kanpoko kirol ekintzak**. Aldagai honek **garrantzi haundia** ahazten du, benetan **definitzen** laguntzen digulako **eskuartean daukagun proiektua** eta era berean, gizarteak gaur egun daukan behar bat azaleratzen du: motrizitatea garatzeko eta mugimendua ahalbidetzen duen heziketan oinarritutako lan esparru edo topaguneak. Hau, **kirol munduko eta baita heziketa munduko profesionalentzat lan aukera paregabea izateaz gain hezkuntzak dituen mugetaz haratago joateko aukera ematen digun proposamena izan liteke**. Beraz **guk erronkari eutsi** eta ibilbidea hasi genuen 2013 an.

Psikomotrizitateari, haurraren psikologia garapena eta ondorioz taldekatzeen garrantzia kontuan hartzen duen planteamendu hezitzailea da orain arte egindako azalpenaren nondik norakoa, ondoren egunerokotasunean egindako lana zertan oinarritzen den azalduko dugu.

“Europako lege biltzarrak (2006) honela definitu ditu gaitasunak: testuinguruari egokitutako ezagutza, gaitasun eta jarrerren konbinazio bat

dira. Gaitasunak giltzarri dira pertsona guztiek behar dituzten garapen eta errealizazio pertsonalerako, hiritar aktibo bihurtzeko eta lana lortzeko.”

“Beraz egiten jakitea, hots, aplikatu daitezkeen jakintza da, testuinguru ezberdinetara egokitzen dena eta izaera integratzailea duena, adibidez: ezagutzak, prozedurak eta jarrerak”

Alde batetik **gaitasunetan oinarritutako praktika proposamena daukagu**, hauek direralik LHko gaitasun orokorrak:

1. **Hizkuntza bidez komunikatzeko** gaitasuna (Irakasle guztiak gara hizkuntza irakasle, hizkuntza delako hartu-emanerako ezinbesteko lanabesa)
2. **Matematikarako gaitasuna** (barne logika ulertzeko tresna gisa erabil dezakegu matematika, markadoreak ulertu eta borrokaldi estrategiak egiteko baliabide gisa)
3. Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreaginean aritzeko gaitasuna
4. **Informazioaren tratamendua eta gaitasun** digitala (markadorearen erabileran inplizituki lantzen da bai gaitasun digitala eta baita informazio tratamendua)
5. **Gaitasun soziala eta herritartasuna** (entrenamendu, topaketa eta txapelketetan egunero ematen dena.)
6. **Arte eta kultur gaitasuna.**
7. **Ikasten ikasteko gaitasuna** (hausnarketa sustatzen duen eguneko praktikek ahalbidetzen dute ikasten ikasteko gaitasuna era berean autonomia maila haundiago batera eramaten gaituztelarik)
8. **Autonomia eta ekimen pertsonala**

8 puntu hauek nola landu daitezkeen adibide txiki batzuk bideoen bitartez erakutsi genezake nahiz eta batzuk oso nabariak diren, adibidez: 1 eta 5. Baina **2 eta 4 gaitasunentzako bideo** bana erakutsi genezake azalpen txikia egiteko.

Honez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu komentatzea **hausnarketaren balioa. Hezitzailea** izan behar bada **jarduna** edo egitekoa **hausnarketak garrantzi haundia** du hor. **Hausnarketaren bitartez** helduko delako haurra **ondorio** ezberdinetara **eta** hausnarketaren bitartez **aldatuko dituztelako lan dinamikak bai haurrek eta baita irakasleek** ere. Beraz, hausnarketaren garrantzia heziketa prozesuan nabaria da eta **honek ahalbidetuko du era berean ikasten ikasteko gaitasun eta baita haurren eta irakasleen autonomi eta ekimen pertsonal maila.**

Hezkuntza paradigmei buruzko hausnarketa

Azkenik gure proposamenarekin amaitzeko eta ez horregatik garrantzi gutxiagorekin interesgarria iruditzen zaigu **hezkuntza paradigma ezberdinei buruzko aipamen** bat egitea.

Bi hezkuntza eredu edo paradigmaren aurrean aurki gaitzke. **Alde batetik hezkuntza eraginkorra** aurki dezakegu, non ezarritako **helburuak lortzen diren** eta haurrek garapen bat jasaten duten. Eredu honetan garrantzia helburuek hartzen dute eta

honetarako eduki, teknika eta transmisioa irakasleak egiten du, gehiengo baten bide unidirezionala jarraitzen duelarik informazioak. Eredu hau **psikologia konduktualaren eraginetik datorkigu**, bere eragina **datu objektiboetan oinarritzen** delarik, hau da, **neurgarriak** diren datuetan, **zientziak lantzen duen eran hain zuzen**. Eraginkorra dela esaten dugu ezarritako helburuak lortzen dituelako eta hauek gainera kuantifikagarriak direlako objektiboki hitz eginda behintzat. Eredu honetan zurrun mantenduz **ikasle** oso onak lor genitzake baina beti **patroi berekoak, espiritu kritiko baxukoak eta zalantzan jartzeko moduko autonomia eta ekimen pertsonal maila**.

Gaur egungo **gizartea eroso sentitzea eta nolabait ere komeni zaio** sistemak berean jarraitzeko **eredu honetan haurrak heztea**; teknika, zientzia oinarri izanda eta **artaldetik urruntzen ez diren haurrak sortzeko**.

Bestalde **kalitatezko hezkuntza** aurki dezakegu, eta eraginkorra objektiboa zen moduan kalitatezkoak **gehiago gerturatzen da subjektibotasunera**. Honek **neurgarria ez den eremu** batera **gerturatzen** gaitu eta horregatik bertan **barneratuko** genituzke **sinesmenen, beldur eta egiteko era malguak**. Beste hezkuntza paradigmaman helburuek garrantzia hartzen bazuten **kalitatezko hezkuntzan garrantzia prozesuak edo bideak hartzen du**.

Nahiz eta lortutakoa ez izan hain ona benetan **garrantzia prozesuari ematen zaio, bizipenei, esperientziari** eta nola ez, bi paradigmamen arteko **ezberdintasun aldagaia** aurrez aipatutako **HAUSNARKETA** dugu. **Hausnarketaren bidez haurra** izango da bere **ikaste prozesuaren zati aktibo**, hausnarketaren bitartez gerturatuko da haurra autonomoago izatera bere esperientzia eta irizpideak erabiliko dituelako aurrerapausoak egiteko eta **hausnarketaren bitartez garatu** ahal izango du aurrez aipatutako **ekimen pertsonala, ikasten ikasteko gaitasuna eta** goreneko mailara iristen bada **bizitzari zentzu emango dion bizitza proiektu batetara**.

Pertsona guztiok ezberdinak gara eta **bakoitzak dauka bere mundu subjektiboa** beraz **era objektiboan hezteak bakoitzaren berezitasunak alde batera uztera behartzen gaitu**. Honek, bakoitzak bere barruan daukan **potentzialtasuna mugatzen** du berezitasunak eta **aniztasunak koloreztatzen duelako gure mundua eta** denok berdina egingo bagenu ez litzatekelako **ideia hauskor eta iraultzailerik gurera iritsiko**. Hau da **arazoa ez dela komeni idea iraultzailerik, beraz honek ondorengo ondoriora gerturatzen gaitu**.

Kalitatezko hezkuntza paradigmak badaukala sinesmen eta ideologiarekin erlazio zuzena ere. Nolako haurrak sortu nahi ditugu, robotera gerturatzen direnak edo irizpide kritikoa dutenak ?

Hau honela **Desoreka judo klubak bere autua hartu zuen hezkuntza eraginkorretik kalitatezko hezkuntzara bidea ekitea alegia**, badakigu oraindik **urruti aurkitzen garela gure helburu horretatik baina bidea ekinez egiten dela ere badakigunez judoan esaten den moduan HAJIME (hasi borroka)!!**

Gehiago ezagutzeko estekak www.desorekajudo.com

Erreferentziak

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2008/07/0804270a.pdf>

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_curricul/adjuntos/14_curriculum_competencias_300/300002e_Pub_BN_Competiciones_Basicas_e.pdf

http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=eeebae18-4d00-4cee-8e79-2f9ffd615fd4&groupId=635622

OCDE (2006). DeSeCo. Definition and Selection of Competencies: Theoretical and Conceptual Foundations. Disponible en la web: <http://www.deseco.admin.ch>

Read, B. (d.g.). El conocimiento práctico en la enseñanza de los juegos deportivos. Nuevas perspectivas curriculares en educación física. (209-221 orrialdeak).